

Kulturarteko Hezkuntza Gorputz Hezkuntzaren Bidez Lantzeko Proposamena: Munduko Jolasak

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Dono González, María.

ZUZENDARIA: Perales Hernández de Gamboa, Andrea.

2021-2022

Laburpena

Etnia, ideia, erlijio, sinesmen eta ohitura ezberdinetako pertsonak elkarrekin bizi behar diren gizarte baten aurrean, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren planteamenduak berrikustea ezinbestekoa da; kulturarteko hezkuntza bat eskainiz. Mota honetako hezkuntzak kultura aniztasuna baloratzea eta errespetatzea, arrazakeriari aurre egitea eta kulturarteko konpetentzia eta komunikazioa sustatzea oinarri duen praktika bat proposatzen du. Gizabanakoen zein taldeen kultura-desberdintasunen inguruko hausnarketatik abiatuz, gizarte demokratikoetako kultura aniztasunari erantzutea du helburu, aniztasun hori aberasgarritzat eta hezkuntza-baliabidetzat hartuz. Era berean, ikasleek balio positiboak (tolerantzia, errespetua, lankidetzeta...) eskuratzeko beharra azpimarratzen du. Testuinguru honetan, ikerketa honen xedea Gorputz Hezkuntzako arloan kulturarteko hezkuntza lantzeko gaitasuna aztertzea da. Arlo honek berdintasunean oinarritutako bizikidetzat sendotzeko ikasleen arteko harremanak bideratu, erraztu eta hobetzen ditu, hortaz, potentzial inklusibo handia duen irakasgaia da. Horrez gain, jolasa kulturaren betidanik egon den elementua izanik, kultura desberdinen arteko trukea eta komunikazioa indartzeko oso baliabide eraginkorra da. Hori dela eta, ikerketa burutzeko jolas kulturaletan oinarritutako sekuentzia didaktiko bat diseinatu eta Lehen Hezkuntzako bi gela ezberdinetan aurrera eraman da. Lortutako emaitzen bidez, ikasleek kulturarteko hezkuntzak proposatzen dituen oinarriak ulertu eta bereganatu dituztela ondorioztatzen da, sekuentzia didaktikoaren eraginkortasuna baieztatuz.

Hitz-gakoak: kulturarteko hezkuntza, aniztasuna, Gorputz Hezkuntza, desberdintasunak, jolasa, Lehen Hezkuntza.

Resumen

Ante una sociedad en la que deben convivir personas de etnias, ideas, religiones, creencias y costumbres diversas, es imprescindible revisar los planteamientos del proceso de enseñanza y aprendizaje; ofreciendo una educación intercultural. Este tipo de educación propone una práctica basada en la valoración y el respeto de la diversidad cultural, la lucha contra el racismo y el fomento de la competencia y la comunicación intercultural. Partiendo de la reflexión sobre las diferencias culturales tanto individuales como colectivas, su objetivo es responder a la diversidad cultural

de las sociedades democráticas, entendida como enriquecedora y como un recurso educativo. Asimismo, subraya la necesidad de que el alumnado adquiriera valores positivos como la tolerancia, el respeto, la colaboración, etc. En este marco, el propósito del presente estudio es analizar la capacidad de trabajar la educación intercultural en el área de Educación Física. Esta área orienta, facilita y mejora las relaciones entre el alumnado para consolidar una convivencia igualitaria, por lo que es una materia con un gran potencial inclusivo. Además, siendo el juego un elemento que siempre ha existido en la cultura, es un recurso muy eficaz para promover el intercambio y la comunicación entre diferentes culturas. Por lo tanto, para realizar la investigación, se ha diseñado una secuencia didáctica basada en juegos culturales llevada a cabo en dos aulas diferentes de Educación Primaria. Mediante los resultados obtenidos, se concluye que el alumnado ha comprendido y asimilado las bases que propone la educación intercultural, confirmando la eficacia de la secuencia didáctica.

Palabras clave: educación intercultural, diversidad, Educación Física, diferencias, juego, Educación Primaria.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Marko teorikoa.....	6
2.1. Kulturartekotasuna gizarte-premia berrien aurrean.....	6
2.2. Eskolaren erantzuna: kulturarteko hezkuntza.....	8
2.3. Gorputz Hezkuntzaren balio inklusiboa.....	12
3. Sekuentzia didaktikoa.....	14
3.1. Ikasle taldeen ezaugarriak.....	14
3.2. Integrazio-egoerak.....	15
3.3. Konpetentziak.....	15
3.4. Hurbilketa kurrikularra.....	16
3.5. Sekuentzia didaktikoaren irizpideak.....	17
3.6. Metodologia.....	17
3.7. Jarduerak.....	20
3.7.1. Afrika.....	20
3.7.2. Amerika.....	22
3.7.3. Europa.....	26
3.7.4. Asia.....	27
3.7.5. Ozeania.....	30
3.7.6. Azkenengo ginkana.....	32
3.8 Ebaluazioa.....	33

4. Emaidzak.....	34
5. Ondorioak.....	35
6. Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	37
Erreferentzia bibliografikoak.....	39

1. Sarrera

Gaur egungo gizartean gaitasun intelektualen, sexualen, kulturalen, linguistikoen, ohituren, klase-sozialen eta abarreko desberdintasunak aurki daitezke. Aniztasun hori ikastetxeetako testuinguruan ere ikus daiteke, hezkuntza gizartearen isla baita. Gizarte-premia berriei erantzuteko, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen planteamenduak berrikusteak ezinbestekoa da, baita irakasleak ikasle-talde heterogeneoen aurrean balio, ezagutza eta jarrera inklusibo eta demokratikoak sustatzeko gaitasuna izatea ere. Kultura aniztasuna gizartearen berezko ezaugarria izanik, beraz, irakasle gisa fenomeno hau ezagutzea eta haren inguruan hausnartzea ezinbestekoa dela pentsatzen dut. Era honetan, kulturarteko hezkuntzak proposatzen dituen oinarriak eta helburuak identifikatuz, etorkizunean ikasleen aukera-berdintasuna lortzeko, arrazakeria gainditzeko eta pertsona guztien kulturarteko kompetentzia garatzeko gai izatea gustatuko litzaidake.

Nire bizitzan zehar, gizartean ezaugarri kultural ezberdinak dituzten pertsonak integratzeko zailtasunak daudela behatu dut. Egoera hau nire haurtzaro zein nerabezarako testuinguruan sarritan errepikatu da; kultura menderatzailearen ezaugarriak bakarrik aintzat hartu eta ezberdinak diren kulturak mespretxatu direla ikusi baitut. Gainera, nik izandako irakasleek ez dute aniztasun horren garrantziaren inguruko gogoetarik sustatu, eta ez dut inoiz kultura ezberdinen aberasgarritasuna ulertzeko esparrurik izan. Hortaz, etorkizunean kulturarteko hezkuntzaren balioetan oinarritutako irakaskuntza bat aurrera eramateko gaitasuna garatzea funtsezkoa dela uste dut. Horretarako, Gorputz Hezkuntzako joko eta jolasen balio didaktikoaz baliatuz, esku-hartze bat diseinatzea eta aurrera eramatea erabaki dut. Izan ere, irakasgai honetan azaleratzen diren balio eta jarrera ugarien bidez kulturarteko hezkuntza jorratzea oso aproposa da.

Lan honetan, lehendabizi, egile ezberdinen ikuspuntuak aztertuz kulturarteko hezkuntzaren oinarri teorikoa azalduko dut. Ondoren, sortutako sekuentzia didaktikoa eta honi dagozkion elementu kurrikularrak (helburuak, metodologia, etab.) aztertuko ditut. Azkenik, aurrera eramandako sekuentziaren inguruko ondorioak eta etorkizunerako hobekuntzak plazaratuko ditut.

2. Marko teorikoa

2.1. Kulturartekotasuna gizarte-premia berrien aurrean

Migrazio-fluxu etengabeen ondorioz, azken urteotan pertsona asko Europako Erkidegoan sartu dira. Fenomeno horrek etnia, ideia, erlijio, sinesmen eta ohitura desberdinetako pertsonak elkarrekin bizi behar diren gizarteen agerpena eragin du. Pertsonen mugimendu hauek sortzen dituzten faktoreak askotarikoak direla esan badaiteke ere, munduko ekonomiaren dinamikak eta globalizazioak eragin handia izan dute. Fenomeno honetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek ere garrantzia handia izan dute; izan ere, teknologia berrien ondorioz gertaerak mundu osoan zehar zabaldu egin dira, eta, aldi berean, garapen bidean dauden herrialdetara mendebaldeko gizarteen bizimoduen informazioa heldu da. Hortaz, herrialde batzuetako biztanleriaren zati handi batek beste motatako kultura eta bizimodua duten lekuetara emigratzea erabaki du (García, 2005).

Gizartean gertatzen diren aldaketa konplexu eta etengabeek, ezagutzaren aurrerapenek eta gizarte-komunikabideetatik informazioa manipulatzeko arriskuek markatutako testuinguru baten aurrean gaude. Hori dela eta, kultura bakoitzeko tradizioak aintzat hartuz gizartearen premia berrietara egokitu behar gara (Juste, 2004). Migrazioen fenomenoak uniformetasunean oinarrituta dagoen gizartearen eredu tradizionala zalantzan jarri du, herritarrotan aniztasunaren inguruko kezka sortuz (Sáez, 2006).

Zentzu honetan, argi dago kulturalki anitza den gizarte baten barruan bizi garela. Beraz, migrazioen prozesua gure gizarteetako berezko ezaugarria dela kontuan izan behar dugu. Gainera, etengabeko globalizazio prozesuek aurrera doazen heinean, migrazioen gaiari ikuspegi berri batekin aurre egin behar zaio. Horregatik, kulturarteko ikuspegi batetik aztertu behar da. Hau da, globalizazioak gure gizartean pertsona oso ezberdinak espazio berean bizitzen egotea eragin duenez, gizartean sortu den kultura aniztasun hau kudeatzeko ikuspegi berritzaile, zabal eta moldagarri bat beharrezkoa da (Sáez, 2006).

Kulturartekotasuna definitzeko, kontzeptu honen eta kultura-aniztasunaren arteko ezberdintasunak aztertzea ezinbestekoa da. Oro har, adierazpen kulturantzak kultura desberdinetatik datozen, baina espazio fisiko berean bizi diren

taldeak edo gizabanakoak hartzen ditu kontuan; hau da, kultura-aniztasuna espazio geografiko berean aurkitzen diren pertsona ezberdinekin elkarrekin bizitzea eta hauek onartzea izango litzateke. Hasiera batean, kultura aniztasuna asimilazionismoaren erantzun gisa sortu zen (García, 2005). Izan ere, azkenengo honek kulturetako talde gutxiak alde batera uzten dituen praktika bat proposatzen du, eta, hortaz, gehiengoan kultura asimilatzean oinarritutako integrazio mota bat sustatzen du (Sáez, 2006). Era honetan, kultura aniztasunak ezberdin izateko eskubidea eta kultura guztien balioztapena aldarrikatzen ditu. Hala ere, kultura kontzeptuaren ikuspegi estatiko eta mugatu bat proposatzen du, aniztasun egoera zehatz bat definitzen duena (García, 2005).

Kultura-aniztasunaren ikuspegi murriztaile honen aurrean, kulturartekotasunak esku-hartze modu bat proposatzen du, eta espazio geografiko eta sozial berean dauden kulturen elkarbizitzarako harremanek eta interakzioek duten balioa azpimarratzen du. Zalantzarik gabe, komunitateko aniztasun kulturalaren gaia aztertzeko orduan proposamen kritikoena eta inklusiboena dela esan daiteke. Laburbilduz, kultura-aniztasunak kultura ezberdinak batera bizi diren fenomenoak definitzeko erabiltzen den bitartean, kulturarteko adierazpenak kultura ezberdinen arteko elkarriketa eta dinamismoa sustatzen duen esku-hartze baten ideia iradokitzen du, kulturen arteko elkarreagin eta aberasgarritasuna eragiteko asmoz (García, 2005).

Aniztasun etiko eta kulturala aberasgarria izatera heltzeko, berdinen arteko errekonozimendutik abiatuz aniztasuna errespetatu eta elkartrukea sustatu behar dira. Horrela, kultura-aniztasunetik kulturartekotasunera pasatzea lortuko dugu. Kulturen arteko elkarrekintza hau zabala, kritikoa eta auto-kritikoa da, eta beste kulturak ezagutzean hasten da. Aniztasuna, orokorrean, eta immigraziotik eratorritakoa, zehazki, aukera eta aberasgarritasun kultural, pertsonal eta sozialtzat hauteman behar da. Hala, praktika berriei, gure gizartean hain errotuta dagoen pentsamendu etnozentrkoa ezabatuko da (Sáez, 2006).

Kulturartekotasunaren ardatza kultura izanik, ondo ulertu behar da kontzeptu honek norberan zein gizartean duen garrantzia. Kultura gizarte talde baten parte izateagatik barneratutako arau, balio, ohitura, jarrera eta sinesmen multzoa da; talde horretako kideek haien artean eta munduarekin interakzioak ezartzeko erabiltzen

dutena, eta belaunaldi-belaunaldiz transmititzen dena. Gainera, kulturak gizarte horretako artea, hizkuntza eta ezagutzak barne hartzen ditu. Elementu hauen bidez gizakiok gure existentzia eta garapenaren esanahia ulertzeko gai gara. Horregatik, kultura hitzak giza-komunitate bateko izaera definitzen duela esan daiteke (Besalú, 2002; Jordán, 1997). Kultura sozializazio prozesuaren bidez eskuratzen da, eta prozesu dinamiko eta aldakortzat jo beharra dago. Gizaki guztiok geure bizitzari zentzua ematen dion identitate kulturala dugu, eta, honen arabera pentsatu, sentitu, hazi, eta hausnartu egiten dugu. Era honetan, aniztasun kulturalak bizitzeko era propioak sortu dituzten pertsona ezberdinak barne hartzen ditu. Kulturartekotasunak, beraz, talde aniztasun kultural hori harremanetan jartzea du helburu; bestearenganako onarpen jarrerak sustatuz eta bere balio, pentsamendu eta emozio propioak aintzat hartuko ditu (Sáez, 2006).

2.2. Eskolaren erantzuna: kulturarteko hezkuntza

Gizartea gero eta heterogeneoagoa den mundu globalizatu honetan, gure pentsamenduan hain errotuta dagoen «etnozentrismo» horretatik aldentzeko premia dago. Pentsamendu honek historikoki ikuspegi nazionalistak ekarri ditu; kultura edo talde sozial bat beste baten gainetik egotea eragin du (Banks, 2014). Etnozentrismoa ezabatzeko, eta kulturartekotasunaren aurrean benetan inklusiboak diren eskolak sortzeko, ikastetxeak ikasleen kultura-aniztasunari arreta egokia emateko irizpide zehatzak ezarri behar ditu, eta irizpide horiek eskola-komunitate osoak partekatu behar ditu; alegia, irakasleak, familiak eta ikasleak (González-Mohino, 2002).

Aldaketa globaleko egoera honek, beraz, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren planteamenduak berrikusteko beharra eragiten du, gizarte-premia berriei erantzuteko (Arroyo, 2013). Herritarrek kulturaren aurreko ikuspegi positibo bat izan dezaten, kulturartekotasunean oinarritutako hezkuntza mota bat eskaini behar zaie. Horrela, aniztasuna eguneroko bizitzarako oztopo bezala ikusi ordez, elkarren arteko faktore aberasgarri bat bezala hauteman egingo da (Sáez, 2006).

Hori lortzeko, Hezkuntza Sistema premia berrietara egokitu behar da; pertsoneri behar dituzten jarrerak eta gaitasunak irakatsiz, gaur egungo gizarte konplexu, plural eta aldakorretan zailtasunik gabe integratzeko (García, 2005).

Eskolak ikasle guztien beharrei erantzuteko erantzukizuna du, esperientziarik onenak eskainiz eta guztiek emaitzarik onenak lortzen dituztela bermatuz. Hori horrela ez bada, etnia, nazionalitatea, erlijioa, generoa, etab. bezalako kategoria sozialen araberrako diskriminazioa sortzeko arriskua dago (Aguado eta Ballesteros, 2015). Zentzu honetan, ikasle bakoitzaren gizartean positiboki eragiten duen hezkuntza inklusibo baten beharra azpimarratzen da, aniztasunean oinarritutako ikasgeletan praktika berriak sustatuz (De Haro et al., 2010).

Testuinguru honetan, kulturarteko hezkuntzak gizabanakoen zein taldeen kultura-desberdintasunen inguruko hausnarketa eta ikerketa hezkuntzaren erdigunean jartzen duen praktika bat proposatzen du. Aniztasuna gaur egungo gizartearen berezko ezaugarria izanik, gizarte demokratikoetako kultura aniztasunari erantzutea proposatzen da, aniztasun hori aberasgarritzat eta hezkuntza-baliabidetzat hartuta (Aguado, 2004). Honen helburu nagusia benetako hezkuntza erreforma bat burutzea da, talde soziokultural guztien hezkuntza-aukeren berdintasuna lortzea ahalbidetuko duena. Horretarako, aukera-berdintasuna hezkuntzarako sarbidea izateaz gain, hezkuntzatik eskuratzen diren onuren lorpena ere dela argi izan behar da (Aguado, 2004; Arroyo, 2013).

Kulturarteko hezkuntzak gizabanakoen eta taldeen behar afektibo, kognitibo, sozial eta kulturei erantzutea proposatzen du; kultura bakoitzak arazo komunen aurrean konponbideak adierazteko aukera izatea ahalbidetuz. Gainera, pertsonen arteko komunikazioa eta berdintasunarekiko jarrera malguak sustatzeko bitarteko bat da. Beraz, ez da gutxiengo etniko edo kulturaletara bakarrik zuzentzen, izan ere, guztiontzako hezkuntza bat proposatzen du (Besalú eta Vila, 2007). Era honetan, kulturarteko hezkuntza gizartean dagoen kulturari buruzko gogoeta bat dela esan daiteke, eta gizarteko kide guztiei zuzendutako hezkuntza-praktikak sustatzen ditu (Aguado, 2004).

Proposamen honetan desberdintasunak hezkuntzaren hausnarketaren erdigunean kokatzen dira, desberdintasun hauek dinamikoak eta aldakorak direla aintzat hartuz. Hortaz, kulturarteko hezkuntzaren oinarritzko helburuetariko bat gizartean haien presente dagoen arrazakeria eta diskriminazioa gainditzea da, bai indibidualki, bai instituzionalki (Aguado, 2004). Horretarako, ikastetxeetan ikasleen eta irakasleen jarrera arrazistak aztertzea ezinbestekoa da. Gainera, jarrera eta balio

demokratikoak garatu behar dira, baita askotariko ingurune soziokulturaletan moldatzeko gaitasuna ere (Arroyo, 2013).

Kulturarteko hezkuntzak gizabanako guztiek kultura-ezberdintasunekiko errespetua garatzea sustatu behar duenez, eskola-eremuan ikasleek balio positiboak eskuratzea ezinbestekoa da. Balio horien artean berdintasuna, errespetua, tolerantzia, pluralismoa, lankidetzeta eta erantzunkidetasuna aipatu behar dira (García, 2005). Horrez gain, ikasleen artean kulturarteko jarrera positiboak bultzatu behar dira, hau da, beste kultura-eredu batzuekiko jarrera irekiak izatea, eredu horietako bakoitza positiboki baloratzea eta norberaren kulturarekin identifikatzea (beti ere, beste kulturekiko harkorra eta kritika eraikitzaileak gauzatzeko gai izaten) (Aguado, 2003; Bartolomé, 2002; Soriano, 2001). Ikastetxeetako ikasleak kultura desberdinetakoak izateak ez da arazotzat jo behar, aukeratzat baizik; izan ere, aniztasunak balio demokratikoetan (tolerantzia, elkarrizketan, elkartasunean, gatazken konponbidean eta taldeko kide izatearen sentimenduan) hezteko aukera ematen du (García, 2005).

Kulturarteko hezkuntza gizarteko kide guztiei zuzenduta dagoenez, hezkuntza-prozesuaren dimentsio guztiei eragingo dien azterketa- eta jarduera-eredu bat proposatzen du (Aguado, 2004). Beraz, hezkuntza-sistemako aldaketek, curriculumean ez ezik, irakasleen jarrera eta prestakuntzan, irakaskuntza-estrategietan, ebaluazioetan, ikastetxearen helburu eta arauetan... eragina izan behar dute (Arroyo, 2013). Garcíaren (2005) arabera, kulturarteko hezkuntzak honako irizpide hauek hartu behar ditu kontuan:

- Ikasle-taldearen benetako eta hautemandako beharretatik abiatzea. Hasteko, norberaren nortasunari buruz hausnartu behar da, bestea ezagutzeko eta bazterkeria mota guztiei aurre egiteko.
- Ikasgelan ematen den irakaskuntzan kultura-edukiak txertatzea, eta, gainera, ikasleek gizartearen eraikuntzan parte har dezaten bultzatzea.
- Ikastetxeen barruan, hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan kulturarteko hezkuntza garatzeko helburuak txertatzea, gutxiengoen premiak kontuan hartuta.

- Kultura-aniztasunarekin lotutako prozesuak sistematikoki eta etengabe ebaluatzea.

Zentzu honetan, hezkuntzak ikastetxeetan gertatzen diren curriculum- eta antolaketa-aldaketei berdin erreparatu behar die, eta prozesu horien iraunkortasuna, arlo soziokulturaleko jarrerak, ezabatu ez diren aurreiritziak eta baztertutako pertsonen arazoekiko sentiberatasunik eza ebaluatu behar ditu. Ebaluazio hau gauzatzeko, curriculum-materialak zein eguneroko praktikak aztertzea ezinbestekoa izango da.

Kulturarteko curriculumak garatzeko, gizartean dauden gai epistemologikoak eta etikoak kontuan hartu behar dira, eta pertsonen garapenean esanguratsuak izan daitezkeen kulturaren ezaugarriak hautatu behar dira. Horrez gain, gizabanakoak gizartean integartzeko lagungarriak izan daitezkeen gai soziologikoak ere kontuan hartu behar dira, eta, horretarako, bizikidetzak sustatzen duten eduki eta balioak ikastea beharrezkoa da. Curriculumak garatzean prozesuaren protagonista nagusia ikaslea dela argi izan behar da, eta haren adinari eta hezkuntza-mailari egokitutako irakaskuntza bat aurrera eraman behar da. Gainera, eskolak ezin ditu ikasle guztiak modu berean eta hezkuntza-eredu bakar baten arabera tratatu, eta ikasgelan dagoen aniztasunaren aurrean jarrera ireki bat izan behar du. Hortaz, argi dago kulturarteko curriculumak testuinguru ezberdinetara egokitzeko malgutasuna izan beharko duela.

Kulturarteko hezkuntza lortzeko ezinbestekoa izango den beste aldaketa bat irakasleen formakuntzarekin lotuta dago. Irakasleen kezka nagusietariko bat ikasgeletan dagoen gizarte-, kultura- eta hezkuntza-aniztasunari arreta emateko arazoak direla azpimarra daiteke. Beraz, erronka hauei aurre egiteko irakasleak aniztasunaren iturria eta horrek dakartzan arazoak eta eskakizunak behar bezala ezagutu behar ditu. Horretarako, kulturarteko hezkuntzaren irakaslearen profila zenbait jarrera eta gaitasun izan behar ditu. Hala, irakasleek antolaketarekin, plangintzarekin eta metodologiarekin lotutako lan-estrategia multzo bat ere eskuratu behar dute; aniztasunaren erronkari aurre egitea ahalbidetuko dien errepertorio pedagogiko zabala izan dezaten. Irakasleek lan egiten duten eskola-testuinguruan dauden kulturen oinarrizko ezagutza sendoa ere izan behar dute, esaterako, beste

kultura eta herrialde batzuk ezagutzeko lagungarriak izan daitezkeen gai batzuk txertatuz (Ipiña, 1997).

Aurreko guztia kontuan hartuz, kulturarteko hezkuntzak hezkuntza gizartean dagoen arazo bati aurre egiteko tresna garrantzitsuenetariko bat bezala aurkeztu egiten du; kultura aniztasuna baloratzeko eta errespetatzeko, arrazakeriari aurre egiteko eta kulturarteko konpetentzia eta komunikazioa sustatzeko tresna gisa, alegia. Era honetan, hezkuntzak pertsona eta kultura bakoitzaren onarpena izango du helburu, eta kultura bakoitzak besteengan duen influentzia positiboki baloratuko du. Horretarako, kulturarteko hezkuntza elkarrekiko errespetuan oinarrituko da, arrazakeria eta xenofobia bezalako jarreraren arriskuez ohartaraziz eta pertsona bakoitzeko oinarrizko eskubideak baloratuz (Sáez, 2004). Gainera, hezkuntza erreforma hau eskola eremuan ez ezik, gizarteko hezkuntza-esparru guztietan eragina izan behar du; horrela, talde sozialeko kide guztiei bidezko mota bat hezkuntza eskainiko zaie (Aguado, 2003; Bartolomé, 2002; Soriano, 2001).

2.3. Gorputz Hezkuntzaren balio inklusiboa

Gorputz Hezkuntza mota guztietako ikasleak integratzeko arlo paregabea da; izan ere, irakasgai honetan ikasleek haien balioak, jarraibideak, jarduteko moduak eta ohiko portaerak modu espontaneoan azaleratzen dituzte. Egoera honen aurrean, Gorputz Hezkuntzak ikasleen arteko harremanak bideratu, hobetu eta sustatu behar ditu; ikastetxe barruan zein kanpoan aplikatuko dituzten jarrera eta balio positiboak sortzeko (Bantulà et al., 2002). Horrela, Gorputz Hezkuntzako saioek inklusioaren erantzule eta sustatzaile izan behar dute, bidezkoagoa izango den mundu bat eratu dadin (Medina, 2002).

Gorputz Hezkuntzaren helburu nagusietako bat ikasleengan bizikidetza eta lankidetza sustatuko duten jarrera positiboak sortzea izango da, kultura anitzeko ikuspegi batetik helburu komunak lortu ahal izateko (Lluch, 2005). Zentzu honetan, Gorputz Hezkuntzak ikasleen arteko harremanak bideratu, erraztu eta hobetu behar ditu, portaera eta balio positiboak sortuz, hainbat gizarte eta kulturatatik datozen pertsonekin berdintasunezko bizikidetza sendotzeko (Medina, 2002; Peña eta Peña, 2014). Gorputz Hezkuntzak ikasleen arteko etengabeko elkarrekintza errazten duenez, argi dago potentzial inklusibo handia duen irakasgaia dela (Lleixá, 2007).

Era honetan, Gorputz Hezkuntzak ikasle etorkinak edo gutxiengo etnikoak eskolan integratzen lagunduko duten alderdiak lantzeko ahalmen handia duela esan daiteke. Irakasgai hau ikasleentzako oso motibagarria izateaz gain, balioen heziketan paper garrantzitsua jokatzen du; jolasen, dantzen, dramatizazioaren eta gorputz-adierazpenaren bidez, ikasleek hainbat ezagutza eskuratzen dituzte, hala nola, jarrera diskriminatzaileak baztertzea eta desberdintasuna errespetatzea (López eta Valenzuela, 2007). Gorputz Hezkuntzak, beraz, arrazakeriaren eta fenomeno horrekin lotutako bestelako adierazpen negatiboen aurkako borroka sustatu behar du. Izan ere, arraza-aurreiritziaren aurkako esku-hartze programak garatzeko espazio ezin hobea eskaintzen du (Lleixá, 2007).

Gorputz Hezkuntzak elkarrekintzan oinarritutako espazio sozializataile bikaina eskaintzen die ikasleei, batez ere jolasa oinarri hartuta. Jolasaren bidez haien rola aldatzeko eta norberarenak ez diren beste ohitura eta bizimodu batzuk imitatzeko aukera dute (Behnke eta Roth, 2002), baita gizarteko balioak eta kulturetako arauak barneratzeko ere (Velázquez, 2001). Jokoa kulturaren betidanik egon den elementua izanik, kultura desberdinen arteko trukea eta komunikazioa indartzeko oso baliabide eraginkorra da (Gambero, 2011; Bantulà et al., 2002). Horrez gain, jolasek ikasle guztien parte-hartzea eta elkarrekintza bultzatzen dutenez, berdintasuna sustatzeko eta estereotipo jakin batzuk gainditzeko proposak dira (Peña eta Peña, 2014).

Argi dago Gorputz Hezkuntzako saioetan kulturartekotasuna lantzeko munduko jokoak eta dantzak txertatzea oso aberasgarria izan daitekeela. Jarduera hauen bitartez, ikasleek haien kultura propioaren edota beste batzuen elementuak balioetsi ditzakete (Flores et al., 2012). Gainera, Euskal Autonomi Elkartearen Oinarrizko Curriculum aintzat hartuz, konpetentzia motorren osagai batek kulturartekotasunari erreferentzia egiten diola aipatu beharra dago: “jokabide motorra erabiltzea norberaren kultura-nortasuna sendotzeko, herriaren balioak indartzeko, eta kulturartekotasuna eta intrakulturalitatea onartu eta balioesteko” (236/2015 dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena). Hori dela eta, argi dago, Gorputz Hezkuntza kulturartekotasunean oinarritutako ikuspegi bat garatzeko proposa dela.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Gorputz Hezkuntzako irakasgaian kulturarteko hezkuntza sustatzeko bost astetako unitate didaktiko bat diseinatu da. Sekuentzia didaktikoa Ander Deunako (Sopela) ikastolako bosgarren mailako bi gela ezberdinetan aurrera eraman ostean, esku-hartzeari buruzko ondorioak eta hobekuntzak plazaratu dira.

3. Sekuentzia didaktikoa

3.1. Ikasle taldeen ezaugarriak

Sekuentzia didaktiko hau Lehen Hezkuntzako 5. mailako bi geletan aurrera eraman da. Klaseak 26 eta 24 ikasletakoak dira eta gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak dira, haien ama-hezkuntza euskara izanik. Hala ere, ikasgela batean badaude duela gutxi Hondurasetik eta Kolonbiatik etorritako bi haur. Ikasle hauek Hizkuntza Indartzeko Banakako Planaren (HIPI) barruan sartuta daude, beraz, astean birritan euskara lantzeko irakasle zehatz baten laguntza jasotzen dute. Zentzu honetan, Gorputz Hezkuntzako saioetan bi ume hauei azalpen batzuk gaztelaniaz ematen zaizkie. Egoera hauetaz gain, gelan ez dira hezkuntza bereziko ikasle gehiagorik aurkitzen.

Ikasle gehienak Lehen Hezkuntza hasi zutenetik batera egon direnez, harreman nahiko estua dute; ondorioz, normalean ez dira haien arteko liskarrik sortzen. Generoaren ikuspegitik, aldiz, neskak eta mutilak bananduta egoten direla behatu da. Gorputz Hezkuntzan, gehienek jarrera parte-hartzailea izaten dute, eta proposatutako jarduerak motibazioz burutzen dituzte. Horrez gain, irakaslearekiko errespetuzko harremana erakusten dute, bere azalpenak arretaz entzunez eta argibideak egokitasunez jarraituz.

5. mailako ikasleek 11-12 urte dituzte jada. Adin hauetan, garapen motorren eboluzioa arin doala izan behar da kontuan. Honekin batera, sexu helduaren lehendabiziko seinaleak agertzen hasten dira; batez ere neskengan. Ondorioz, ikasleek erronka desberdinei aurre egiteko gorputza prestatuago edukiko dute. Gainera, gorputzaren eskema finkatzen da, eta espazioari eta denborari buruzko ezagutza osatu egiten da. Hori dela eta, neskak zein mutilak askotariko kirol eginkizunak burutzeko prest daudela esan daiteke. Garapen kognoszitiboari dagokionez, adin honetan pentsamendu operatzaileak goia jotzen duela kontuan

hartu behar da. Hortaz, ikasleek edozein gertaera kritikotasunez aztertzeko ahalmena garatuko dute. Gainera, errealitatea ulertzeko erabiltzen dituzten arrazonamenduak orokortasunetik gero eta hurbilago egongo dira (Llorente, 2004).

3.2. Integrazio-egoerak

Izenburua	Munduko jolasak
Testuingurua	Euskal Herrian kultura ezberdinak bizi dira, eta errealitate hau gaur egungo ikasgeletan ere islatzen da. Hala ere, pertsona askok ez dute gizarteko aniztasuna errespetatzen eta balioesten. Hori ez gertatzeko, beste kulturetako ezaugarriak eta elementuak ezagutzea ezinbestekoa da.
Arazoa	Uste duzue kultura aniztasuna gizartea aberasten duela? Gai zarete beste kultura batzuetako elementuak identifikatzeko? Ezagutzen al dituzue beste kultura batzuetako jolas-tradizioak?
Xedea	Kultura aniztasunaren aberasgarritasuna baloratzea, munduko jolasak landuz, norberaren zein beste kultura eta nortasuna aintzat hartzeko.
Zeregina	Klasean lantzen diren jolasen bidez, munduko mapa osatuko duzue eta amaieran kulturarteko ginkanan parte hartuko duzue.

3.3. Konpetentziak

- Elkarbizitzarako konpetentzia: Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.
 - Osagaia: Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.
- Konpetentzia motorra: Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune

fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu, eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, gorputzaren eta norberaren alderdi fisiko eta emozionalen ongizatea lortzen laguntzeko.

- Osagaia: jokabide motorra erabiltzea norberaren kultura-nortasuna sendotzeko, herriaren balioak indartzeko, eta kulturartekotasuna eta intrakulturalitatea onartu eta balioesteko.

3.4. Hurbilketa kurrikularra

Helburuak	Edukiak	Ebaluazio-irizpideak
Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatzuz.	1. MULTZOA. Eduki komunak: - Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea). - Norberaren jokabide morala erregulatzea.	Aniztasun kulturala errespetatu behar dela ulertzea, giza eskubideen garrantziaz jabetuz, jokoen eta heziketa fisikoaren balio positiboak baliatuz.
	5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza: - Jolasa eta kirola, jardun sozial eta kulturalak diren aldetik. - Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako herri-izaerako kirol, dantza eta jolas tradizionalak egitea eta ikertzea. - Norberaren	

	nortasunaren eta kulturaren ezaugarriak errespetatu eta eskolan izandako bizipenak balioestea.	
--	--	--

3.5. Sekuentzia didaktikoaren irizpideak

Helburuak	Edukiak	Lorpen-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> - Pertsona guztiekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrerak sustatzea, jokoan onura sozial eta kulturalak baliatuz, bidezkoa den gizarte bat eraikitzeko grina pizteko. - Beste kultura batzuk ezagutzeko interesa izatea, munduko jolasak abiapuntutzat hartuz, aniztasun kulturalaren aberasgarritasuna ulertzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Munduko jolasak aztertzea. - Jolasen bidez beste herrialde batzuetako ohiturak identifikatzen jakitea. - Gizarterako ezinbestekoak diren balio demokratikoak garatzea: errespetua, lankidetzaren, tolerantzia eta enpatia, besteak beste. - Gure kulturako jolasak identifikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Badaki euskal kulturako eta beste kultura batzuetako jolas eta kirol fisikoaren tradizioak zeintzuk diren. - Beste pertsonetarako harreman integratzaileak erakusten ditu. - Bere kultura propioaren zein besteenaren elementuei buruz hausnartzen du, eta hauek errespetatzen ditu.

3.6. Metodologia

Sekuentzia didaktiko hau joko-jolasen balio didaktikoan oinarrituta dago. Jokoaren bidez balioak eta jokabide-arauak transmititzen dira, gatazkak konpontzen dira, ikasleak hezten dira, eta haien nortasunaren alderdi asko garatzen dituzte.

Beraz, jolasa gizakiaren garapen fisiko zein psikikoaren faktore garrantzitsutzat hartzen da. Haurren garapena jolasarekin zuzenean lotuta dagoela esan daiteke; izan ere, jarduera natural eta espontaneoakenez, haurrak bere nortasuna eta gizarte-trebetasunak garatzen ditu, gaitasun intelektualak eta psikomotorrak hobetzen ditu, eta, oro har, gizartean bizitzen eta bere aukerak eta mugak ezagutzen ikasten du.

Jolasa haurrak bere sentimendu, interes eta zaletasunak adierazteko duen bitarteko garrantzitsuenetako bat da. Sormenari, arazoekonponbideari, hizkuntzaren edo gizarte-eginkizunen garapenari lotuta dago. Gainera, hezkuntza-funtzio indartsua du; haurrari bere gaitasun motorrak, mentalak, sozialak, afektiboak eta emozionalak garatzen laguntzen baitio. Horrez gain, bere interesa eta esplorazio-espírituak sustatzen ditu, inguruan duena ezagutzeko grina piztuz. Jolasa kanpoko errealitatea ulertzeko prozesu bihurtzen da, eta haurrak pixkanaka osatzen eta berregituratzen ditu munduari buruz sortu dituen kontzeptuak (Chamorro, 2010).

Aurreko guztia kontuan hartuz, kulturartekotasuna Gorputz Hezkuntzarekin uztartzeko, munduko jolasak landuko dira. Horretarako, 2 orduko 5 saio erabiliko dira, eta hauetan kontinente bakoitzeko jarduerak eramango dira aurrera. Unitatean ageri diren jarduera guztiak munduko jolasak biltzen dituzten bi liburu ezberdinetako ekarpenak dira: *365 juegos de todo el mundo* (Carlos Velázquez Callado) eta *Juegos multiculturales: 225 juegos tradicionales para un mundo global* (Jaume Bantulá Janot eta Josep Maria Mora Verdeny). Hala ere, jolas hauetako batzuk ikasle-taldearen ezaugarrietara moldatuta edota egokituta daudela aipatu beharra dago.

Saio bakoitza 4 edo 5 jokoz osatuta egongo da, eta hasieran amaieran baino jarduera energetikoagoak gauzatuko dira. Azalpenak era zehatz eta argian emango dira, eta ikasgelako haurreei ikasle etorkinei argibideak emateko aukera emango zaie (haien arteko komunikazioa sustatzeko). Joko bakoitza hasi baino lehen, bere jatorrizko herrialdea munduko mapa batean adieraziko da (*1. eranskina*); haren ezaugarri orokor batzuk aipatuz. Horrekin batera, jolas batzuetan beste hizkuntza batzuetako hiztegia agertuko denez, horien esanahia azaldu eta grafikoki adieraziko da (*2. eranskina*).

Jarduera bakoitzaren amaieran, ikasleek kultura ezberdinetako jokoak haietzako ezagunak diren beste batzuekin alderatzeko aukera izango dute. Horrela, kulturen arteko antzekotasunei buruz hausnartuko dute eta unitatearen amaieran landutako kulturen ikuspegi orokorra izango dute. Horrez gain, Gorputz Hezkuntzaren balio didaktikoa hobeto ulertzeko, saioen azkenengo zatian ikasi dutenaz hausnartzeko tarte bat eskainiko zaie. Irakaslearen eta ikasleen rolari dagokienez, nire lana, batik bat, bideratzailea, bitartekaria, gidaria edo laguntzailea izatea izango da. Bestalde, ikasleak prozesuaren aldi guztietan protagonistak izango dira; berezko gaitasunak dituztela kontuan hartuko da, haien jarduera autonomia errespetatuko da, ikerketa eta esploraziorako grina izango dute, etab.

Sekuentzia didaktikoaren amaieran, ikasleek kulturarteko ginkana batean parte hartzeko aukera izango dute. Ginkanak kooperazioan oinarritutako hainbat erronka bilduko ditu, non helburu jakin bat lortzeko ikasleen arteko lankidetzak sustatuko den. Hori dela eta, ginkanak ikaskuntza kooperatiboa eta erantzukizun pertsonaleko eta sozialeko ereduak batu egiten dituela esan daiteke. Eredu hibrido honen ideia nagusia jarduera fisikoa bizitzarako trebetasunak eta balioak irakasteko erabiltzea da; pertsonen erantzukizun pertsonal eta sozialaren maila hobetuz. Horretarako, ikasleek gaitasun beharreko 5 erantzukizun-maila daude, behatzeko moduko jokabideekin:

Lehenik, errespetuaren balioa landu behar da; ikasleek besteek parte hartzeko eta ikasteko duten eskubidea baloratzen ikas dezaten. Gainera, haien portaera kontrolatzeko gai izango dira, besteek ikasteko duten eskubidean eta irakasleak irakasteko duen eskubidean eraginik izan gabe. Bigarrenik, parte-hartzea eta ahalegina garatuko dute. Horrela, ikasleek portaera, jarrera eta balio pasibo edota negatiboak indargabetuko dituzte eta berezko motibazioaren bidez parte hartuko dute (burutu beharreko jarduera betebehar bat dela pentsatu gabe).

Hirugarrenik, ikasleen autonomia sustatuko da. Era honetan, ikasleek haien ongizatearen aldeko erantzukizunak bakarrik hartzen ikasiko dute. Horrez gain, ikasle irakaslearen etengabeko gainbegiratzetik gabe lan egingo dute, beharretan oinarritutako helburuak planteatuko dituzte eta taldearen presio negatiboari aurre egingo diete. Laugarrenik, beste laguntza eskaintzeko ahalmena garatuko dute; besteen beharrak eta sentimenduak onartuz. Ikasleek eskaerei lagundu egingo

diete, epaitu gabe, sarien zain egon gabe eta harroak izan gabe. Azkenik, eskuratutako ezagutzak transferitzen ikasiko dute; aurreko jokabide guztiak ikasgelatik edo programa zehatzetik kanpoko beste testuinguru batzuetan aplikatzeko gai izan daitezten (Fernández-Rio eta Méndez-Giménez, 2016).

3.7. Jarduerak

3.7.1. Afrika

Itík erhák	
Herrialdea	Maroko
Materiala	Petoak
Taldekatzeta	2 talde
Azalpena	
<p>Zoriz, talde bakoitzari harrapatzaile edo iheslariaren papera esleituko zaio. Harrapakariak ihes egiteko segundo batzuk izan ostean, harrapatzaileen taldea haien atzetik irtengo da, beste taldeko edozein jokalaria harrapatzeko asmoz. Hori gertatzen denean, gehienez ere 4 harrapatzailek harrapatutako jokalaria inguratu dezakete, aurretik adostutako eremu bateraino eramateko. Ibilbidean zehar presoak ezin izango du erresistentziarik ezarri. Hala ere, haren taldekide batek gorputzeko edozein lekutan ukituz gero, salbatu egingo da. Harrapatzaileek, beraz, presoak babes dezakete, aurkariaren ekintza posibleak blokeatuz. Iheslari guztiak harrapatzen direnean paperak trukatu dira.</p>	

Gele	
Herrialdea	Mali
Materiala	Makila bat edo pilota txiki bat eta petoak
Taldekatzeta	2 talde
Azalpena	
<p>Jokalariak bi taldetan banatu dira. Jokoan neutrala den pertsona batek pilota ezkutatu eta denak bere bila joan daitezten oihu egingo du. Bi taldeen</p>	

helburua pilota ezkutatu duen jokalaria iramatea izango da, horretarako, haien arteko paseak egin ahal izango dituzte, pilota beste taldeari kendu diezaiokete (edozein metodo erabiliz) edota disimuluan eramane dezakete (beste taldeak pilota dutela ez jakiteko).

Cheia	
Herrialdea	Mozambique
Materiala	Txinoak, pilota bigunak eta konoak
Taldekatzeta	4 talde
Azalpena	
<p>Jarduera hau burutzeko, 4 talde osatuko dira, eta talde bat beste baten kontra arituko da. Horretarako, txinoekin karratu formako bi eremu markatuko dira eta bakoitzean bi talde egongo dira. Karratu bakoitzaren barruan 7 kono sakabanatuko dira, hauetariko bat beste kolore batekoa izanik. Kolore ezberdineko konoa eremuaren erdigunean egongo da, eta talde bateko jokalaria bat bertan jarriko da. Beste taldeko jokalaria guztiak karratuaren kanpoaldea egongo dira eta hainbat pilota izango dituzte. Erdigunean dagoen jokalaria helburua kono guztiak jasotzea eta erdiko konoaren gainean jartzea izango da, kanpoan dauden jokalariek pilotekin burutzen dituzten jaurtiketak saihestuz. Helburua lortzen baldin badu, taldeak puntu bat lortuko du. Ekintza berdina errepikatuko da bi taldeetako ikasle guztiak erdigunetik pasatu arte.</p>	

Kameshi ne mpuku	
Herrialdea	Kongo
Materiala	Ez da materialik behar
Taldekatzeta	Guztiak batera
Azalpena	

Jokalari guztiak zutik egonda hainbat ilara osatu eta besoak luzatuko beharko dituzte, baten eskuek alboetan dituen jokalarien eskuak uki ditzaten. Horrela, zuhaitz-baso bat irudikatuko da. Ikasle batek lehoiaren papera hartuko du, eta antilopearen papera duen jokalaria harrapatu beharko du. Era honetan, antilopea zuhaitzen artetik joango da, lehoia atzetik duelarik. Zuhaitzaren papera duen jokalaria batek (aldeaz aurretik izendatua izan dena), “haizea” oihukatzen badu, zuhaitz guztiak 90° bira eman beharko dute, beti ere besoak luzatuz. Honen helburua lehoiak harrapatzeko zailtasunak izatea izango da. Lehoiak antilopea harrapatzea lortzen duenean, honek lehoiaren papera eskuratuko du eta beste ikasle bat aukeratuko da antilopearena egin dezan.

3.7.2. Amerika

Dog and geese dodgeball	
Herrialdea	Barbados
Materiala	Txinoak eta pilotak
Taldekatzea	2 talde
Azalpena	
<p>Jarduera honetan bi talde bereiziko dira, bata erasotzailea eta bestea defendatzailea. Talde erasotzaileko jokalaria txinoen bidez lurrean markatutako zirkuluaren kanpoaldean jarriko dira, eta talde defendatzailekoak, aldiz, barruan. Barruan dauden ikasleak bata bestearen atzean kokatuko dira; sorbaldetatik edo gerritik helduta.</p> <p>Erasotzaileek defendatzaileen kateko azken jokalaria jotzeko hainbat baloi izango dituzte; horretarako, zirkuluaren kanpoaldetik jaurti beharko dute. Baloiak talde defendatzailearen ilarako azkena ukitzen duenean, kolpatutako jokalaria kanpoko taldearekin integratuko da. Horrela, banan-banan, defentsa taldeko jokalaria kanporatuko dira, azkenean bakarra geratu arte. Azken honek 10 aldiz saihestu beharko du pilota. Lortzen badu, bere kide guztiak salbatuko ditu, eta hasierako ilarara itzuliko dira. Aitzitik, pilotak jotzen badu, taldeek euren paperak</p>	

trukatuko dituzte eta jokoa berriro hasiko da.

Dropeau	
Herrialdea	Kanada
Materiala	Txinoak, petoak, makila bat eta oihal-zati bat
Taldekatzea	Bi talde
Azalpena	
<p>Txinoen bidez, lurrean bi lerro paralelo irudikatuko dira (haien artean 20 metro inguruko distantzia egonda). Makila oihal zati batekin lerro baten gainean utziko da; bandera bat izango balitz bezala. Bi lerroen arteko eremua erdiko zona izango da, banderadun lerroaren atzealdea defentsa-eremua eta beste lerroaren atzealdeari, berriz, eraso-eremua esango zaio. Jokalariak bi taldetan banatuko dira. Erasotzen duen taldea eraso-eremuan jarriko da, eta defendatzen duen taldea defentsa-eremuan.</p> <p>Erasotzen duen taldeak poliziaren papera hartuko duen jokalaria bat izendatuko du. Jokalaria erdiko zonaldean kokatuko da, eta ezin izango da bertatik irten. Jokoa hasten denean, defendatzen duen taldea erdiko eta defentsako eremuetatik mugitu ahaliko da, baina ezin izango da eraso-eremuan sartu. Bestalde, erasotzaileak zelai osoan zehar mugitu ahal izango dira.</p> <p>Erasotzen duen taldearen helburua bandera hartzea izango da. Beraz, defendatzen duen taldearen helburuahori saihestea izango da, jokalaria erasotzaile guztiak harrapatuz (polizia izan ezik). Zentzu honetan, erdiko edo defentsako zonetan defendatzaile batek erasotzaile bat ukitzen badu, azkenengo hau kanporatukoda. Poliziak defentsako jokalaria bat ukitzen badu, hori ere kanporatuko da. Gainera, poliziak ezin izango du bandera jo.</p> <p>Talde erasotzaileak bandera eskuratzea lortzen badu, jokoa modu berean hasiko da berriro. Aitzitik, defentsa-taldeak erasotzaile guztiak kanporatzea lortzen badu, bi taldeek euren paperak trukatu dituzte.</p>	

Darebase	
Herrialdea	Estatu Batuak
Materiala	Petoak eta txinoak
Taldekatzea	2 talde
Azalpena	
<p>Txinoen bidez, 20 metro inguruko distantzia duten bi lerro paralelo irudikatuko dira. Jokalariak bi taldetan banatuko dira, eta talde bakoitza lerro baten atzean jarriko da. Talde bateko jokalaria batek bere lerroa gainditu eta erdialdera abiatuko da. Beste taldeko jokalaria bat hura harrapatzen saiatuko da. Momentu horretan, lehen taldeko beste jokalaria bat jokalaria hori harrapatzera aterako da, eta horrela, ekintza bera behin eta berriz errepikatuko da, norbaitek bere helburua lortu arte (esleitutako pertsona harrapatzea). Jokalariak haien taldeko lerroaren atzean salbu egongo dira.</p> <p>Norbait harrapatzen denean, hura harrapatu duen jokalaria "Stop" esan eta joko gelditu egingo da. Bi taldeak hasierako posturara itzuliko dira, harrapatua izan den jokalaria izan ezik, erdiko aldean kokatuko dena (beste taldearen lerroa zapalduz). Beste jokalaria batzuk harrapatu ahala, lehenengoari eskua emango diote, kate bat osatuz.</p> <p>Jokalari libre batek katea osatzen duen norbait jotzea lortzen badu, askatu egingo ditu eta denak bere zelaira itzuliko dira. Aurkako taldeko jokalaria guztiak harrapatzea lortzen duen taldeak irabaziko du.</p>	

El cartero	
Herrialdea	Dominikar Errepublika
Materiala	Uztailak
Taldekatzea	Guztiak batera
Azalpena	

Uztai-zirkulu bat sortuko da. Jokalari bat zirkuluaren erdian jarriko da zutik, eta gainerako guztiak uztai ezberdin batean kokatuko dira. Erdian dagoenak jolasa hasiko du, besteekin honako elkarrizketa hau ezarriz:

- Erdikoa: “Nor bait igaro zen nire etxetik”.

- Besteak: “Nor?”

- Erdikoa: “Postaria”

- Besteak: “Zer ekarri du?”

- Erdikoa: “Eskutitzak”

- Besteak: “Norentzat?”

Orduan, erdiko ikasleak ezaugarri jakin bat adieraziko du, esate baterako, “anaia txikiak dituztenentzat”, edo “kamiseta urdina daramatenentzat”.

Aipatutako ezaugarriak betetzen dituzten pertsonak uztai aldatu beharko dute, eta erdigunean dagoen pertsonak ere hutsik dagoen uztaila bilatuko du. Uztailik gabe geratzen den jokalaria zirkuluaren erdian kokatuko da, eta prozesua errepikatuko da.

Tierra y mar

Herrialdea

Honduras

Materiala

Ez da materialik behar

Taldekatzea

Guztiak batera

Azalpena

Ikasle guztiak marra baten gainean kokatuko dira. Marraren alde bateko eremua lurra izango da, eta bestea, aldiz, itsasoa. Pertsona bat marratik kanpo egongo da, eta bera izango da “lurra” edo “itsasoa” esateko arduraduna. Lurra edo itsasoa aipatzen direnean, ikasleak aurretik zehaztutako eremura salto egin beharko dute. Norbait erratzen baldin bada, bere lekuan jesarri beharko da,

azkenean jokalaria bakarra geratu arte.

3.7.3. Europa

Anbulantzia	
Herrialdea	Suedia
Materiala	Txinoak
Taldekatzea	Guztiak batera
Azalpena	
<p>Txinoekin ospitale izeneko eremu bat irudikatuko da. Harrapatzailea gainerakoen atzetik egongo da, norbait harrapatu nahian. Ukitutako jokalaria guztiak lurrian eseri beharko dira, mugitu gabe. Libre dagoen jokalaria batek lurrian dagoen beste bat ukitzen badu, salbu egongo da; hala ere, elkarrekin mugitu gabe egon beharko dira.</p> <p>Lau jokalaria libreek harrapatua izan den ikasle bat ukitzea lortzen baldin badute, lau gurgil eta zauritu bat dituen anbulantzia bat sortuko da. Momentu horretan, bost jokalaria, kontaktua galdu gabe, ospitaleraino mugitu beharko dira, eta hortik jokalaria libre gisa bueltatuko dira.</p>	

Manor, one, two, three	
Herrialdea	Britainia Handia
Materiala	Petoak
Taldekatzea	Guztiak batera
Azalpena	
<p>Jokalaria bat harrapatzailea izango da, begiak itxiko ditu eta 100 arte zenbatuko du aurretik zehaztutako eremu jakin batean. Bitartean, beste guztiak ezkutatu beharko dira. Zenbatzen bukatu ostean, guztien bila irtengo da eta</p>	

norbait ikustekotan, hura harrapatu beharko du. Une horretatik aurrera, harrapatutako pertsonak harrapatzaileari lagunduko diote, besteak harrapatu nahian.

Jokalari batek bere burua salbatzeko aukera izango du; ukitua izan gabe baseraino iristea lortzen badu eta: “Manor, one two, three” (“Feudo, bat, bi, hiru!”) oihukatzen badu. Jokoa jokalari guztiak harrapatu edo salbatu direnean amaituko da.

Mezuak	
Herrialdea	Letonia
Materiala	Petoak, paper zatiak eta boligrafo bat
Taldekatzea	Bi talde
Azalpena	
<p>Ikasleek bi talde osatuko dituzte, talde bateko ikasle bat ezkutatuko da eta beste taldekoak haren bila joango dira. Ikastolako eremuak kontuan hartuz, ezkutatzen den jokalariaren taldeak goiko pistan mezu bat ezkutatuko du. Mezu horrek 1 zenbakia izango du, eta 2 zenbakia duen mezua non dagoen adieraziko du. Taldeak mezuak bilatu beharko ditu azkenean jokalaria ezkutatzen den lekua aurkitu arte. Bilatzen duen taldea batera joan beharko da joko osoan zehar.</p>	

3.7.4. Asia

Hong-Lui-Ten	
Herrialdea	Txina
Materiala	Petoak
Taldekatzea	Guztiak batera
Azalpena	

Jokoari hasiera emateko, hainbat harrapatzaile izendatuko dira, beste guztiak iheslariak izanik. Jokalariak nire jarraibideen arabera mugitu beharko dira. Horrela, "gorria" esaten dudanean, parte-hartzaile guztiak geldirik geratuko dira. Kasu honetan, harrapatzaileek taldekideren bat harrapatzen saiatzeko hiru pauso emateko aukera izango dute. "Horia" esaten dudanean, denak hanka herrenean joango dira, eta "berdea" esaten dudanean, aldiz, korrika egin beharko dute. Ekintzak irauten duen bitartean harrapatzaile batek norbait ukitzea lortzen badu, paperak trukatuko dituzte.

Kabaddi	
Herrialdea	Nepal
Materiala	Ez da materialik behar
Taldekatzea	2 talde
Azalpena	
<p>Zelaiaren mutur bakoitzean talde bat egongo da. Talde bakoitzeko jokalariak kontrako zelaiari norbait harrapatzen saiatuko dira. Hala ere, harrapatzen duen pertsona bere zelaira oso azkar bueltatu beharko da, jokalari bat harrapatu ondoren, gainerako aurkariak hura harrapatzeko aukera izango baitute.</p> <p>Jokalari batek norbait harrapatu eta bere zelaira itzultzea lortzen badu, harrapatuta izan dena preso geratuko da. Bere zelaira itzultzea lortzen ez baldin badu, ordea, harrapatzailea izango da preso geratuko dena. Jokalari batek beste taldeko edonor harrapatuz gero, bere taldeko pertsona bat salba dezake.</p>	

Tchlan Foup	
Herrialdea	Iran
Materiala	Petoak, bate bat, teniseko pilota bat eta hainbat zapi
Taldekatzea	Bi talde

Azalpena

Jokoa laukizuzen formako eremu batean burutuko da, eta haren kanpoaldean kartzela izeneko espazio bat zehaztuko da.

Jokalariak bi taldetan banatuko dira; batzuk hartzaileak izango dira, eta besteak, aldiz, bateatzaileak. Bateatzaileak laukizuzenaren alde labur batean atzean egongo dira, eta hartzaileek laukizuzenaren barrualdean zehar sakabanatuko dira. Zelaiaren atzeko lerroan, hainbat zapi kokatuko dira.

Hartzaile bat beste taldeko jaurtitzailer baten aurrean kokatuko da, eta pilota bota beharko dio. Jaurtiketa zuzena ez bada, errepikatu beharko du. Hala ere, bateatzaileak pilota astintzen saiatzen bada, edo hura astintzean jokoaren laukizuzenaren barruan erortzen ez bada, kolpea baliogabetzat joko da. Bateatzaileak hiru kolpe baliogabe pilatzen baditu, kartzelara joango da. Pilota astindu ondoren edozein hartzailek airean harrapatzea lortzen badu, gauza bera gertatuko da. Bateatzaileak pilota ondo jotzen badu, aldiz, korrika irtengo da, zapiak dauden gunera iritsi nahian. Bestalde, hartzaileak pilota bereganatzen saiatuko dira, honekin laukizuzenaren barruan dagoen bateatzailea jotzeko. Hori gertatzen bada, bateatzaileak jokoa utzi eta kartzelara joango da.

Aitzitik, bateatzailea zapien gunera iristea lortzen badu, bat hartu eta bateo-gunera itzul daiteke. Erabaki hori hartuz gero, beste taldekoek pilotarekin jo dezaketeela kontuan izan behar da. Hori dela eta, bateatzaileak zapien eremuan geratzea erabaki dezake. Bi kasuetan, hasierako prozesua errepikatuko da; beraz, bere taldeko kide batek pilota jaurtiko du. Beste norbaitek bateatzen duenean, zapien gunean dauden kideek haien gunera zapi bat eraman dezakete. Dena den, pilotak lurra ukitu baino lehen bateo-gunetik alde egiten badute eta hartzaileek pilota airean harrapatzen badute, laukizuzenaren barruan dauden bateatzaile guztiak kartzelara joan beharko dira. Horrez gain, jokalaria batek zapien eremua uztea erabakitzen badu, ezin izango da bertara itzuli (nahitaez joan behar da bateo-gunera).

Bateatzen duen taldearen helburua ahalik eta zapi gehien eskuratzea izango da, kontuan izanik jokalaria bakoitzak zapi bakarria eramateko aukera izango

duela. Bateatzeko jokalaririk geratzen ez denean, bateo-eremuan metatutako zapiak zenbatuko dira, eta bi taldeek haien rolak trukatu.

Hana, hana, kuchi	
Herrialdea	Japonia
Materiala	Ez da materialik behar
Taldekatzea	Guztiak batera
Azalpena	
<p>Parte-hartzaile guztiak lurrian eserita egongo dira, zirkulu bat osatuz. Horietako batek liderraren papera eskuratuko du, eta jokoari hasiera emateko, sudurra eta ahoa hiru aldiz ukituko du “hana, hana, hana, kuchia” (“sudurra, sudurra, ahoa”) esanez. Ondoren, esaldi bera errepikatuko du (“hana, hana, hana”), sudurra hiru aldiz ukitu eta gorputzaren beste atal bat izendatzen duen bitartean. Gainerako jokalariek liderrak esaten duena egin beharko dute, izendatzen dituen gorputzeko atalak ukituz. Hala ere, jokalaria oso adi egon beharko dira, liderrak gorputzaren atal bat izendatu eta beste bat ukitu dezakeelako.</p>	

3.7.5. Ozeania

Buroinjin	
Herrialdea	Australia
Materiala	Petoak eta baloi bat
Taldekatzea	Bi talde
Azalpena	
<p>Jokalariak bi taldetan banatuko dira, eta talde bakoitza zelaiaren alde motzak markatzen dituzten lerroen atzean kokatuko da. <i>Buroinjin</i>-a (baloia) zelaiaren erdian jarriko da. Seinale batera, bi taldeak <i>buroinjin</i>-a eskuratzen</p>	

saiatuko dira, aurkako taldearen lerroa gurutzatzeko. Horretarako, honako arau hauek errespetatu beharko dituzte:

- 1) *Burinjin*-a edozein norabidetan jaurti daiteke, baina ezin da kolpatu edo ostikatu.
- 2) *Buroinjin*-a duen jokalaria beste taldeko norbaitengatik ukitua izaten bada, baloia airera eta atzerantz bota beharko du, gutxienez bere buruaren gainetik 2 metroko altueran. Gainera, ezin izango du baloia berriro ukitu bere taldeko edo kontrako taldeko beste jokalaria batek ukitu arte.
- 3) *Buroijin*-a zelaiaren alboetatik irteten bada, atera aurretik azken aldiz ukitu zuen jokalariaen aurkako taldeak jokoan jarriko du.
- 4) *Buroijin*-aren jabe den jokalaria batek aurkako taldearen lerroa zeharkatzen duenean, puntu bat lortuko du bere taldearentzat.

Ver ver aras lama	
Herrialdea	Papua Ginea Berria
Materiala	Uztailak eta pilota txikiak
Taldekatzea	4 pertsonetako taldeak
Azalpena	
<p>Jarduera honetan 4 pertsonetako taldeak osatuko dira eta talde bakoitzak ekintza bera burutu beharko du. Lurrean 4 uztai egongo dira; karratu bat osatuz. Karratuaren erdian beste uztai bat utziko da, eta barruan sei pilota egongo dira. Uztai bakoitzaren barruan jokalaria bat egongo da; erdian dagoen uztaian izan ezik. Jokalariak haien uztaian hiru pilota sartzen saiatu beharko dira; horretarako, erdiko uztaikoak edo taldekideenak lapurtu beharko dituzte. Ibilbide bakoitzean pilota bakarra har dezakete, eta ezin izango dute pilota jaurti. Horrez gain, taldekideek ezin izango dute beste jokalariaen ibilbidea oztopatu, ezta pilotak uztaitik kentzea saihestu ere.</p>	

3.7.6. Azkenengo ginkana

Ozeaniko jolasak amaitzean, ikasleek ginkana kooperatibo baten bidez altxor ezkutua aurkitu behar dutela adierazten duen mezu bat jasoko dute. Honetan, 4 erronka nagusi egongo dira eta hauek bukatzean ikasleek puzzle zati batzuk eta pista bat jasoko dute. Pista horren bidez, hurrengo erronkaren azalpena bilatuko dute. Horrela, 4 erronkak burutu ostean, puzzlea osatu (3. *eranskina*) eta horrekin altxorreraino iritsiko dira. Altxorra saioetan zehar burutu ditugun jolas guztien liburuxka izango da (4. *eranskina*). Hauek izango dira ginkanako erronkak:

1. jarduera	
Herrialdea	Euskal Herria
Materiala	Askotarikoa (sokak, uztailak, konoak...)
Azalpena	
Ikasleak material-mota ezberdinez baliatuz, Euskal Herriko 2 joko eratu beharko dituzte. Ondoren, guztiak batera sortutako jokoak praktikan jarri beharko dituzte.	

2. jarduera (El pescao Cao Cao)	
Herrialdea	Kolonbia
Materiala	Pilota edo puxika bat
Azalpena	
Ikasleek pilota bat airean mantendu beharko dute. Horretarako, ezin izango dituzte eskuak erabili. Haien helburua jarraian 10 ukitu egitea izango da, baina ikasle bakoitzak pilota behin bakarrik jotzeko aukera izango du.	

3. jarduera (Takgno)	
Herrialdea	Tailandia

Materiala	Ez da materialik behar
Azalpena	
<p>Ikasleak elkarren ondoan jarriko dira, aurrez aurreko bi ilaratan. Haien aurrean dagoen kidearen eskuei gogor heldu beharko diete; besoak gurutzatuz. Horrela, koltxoi moduko bat sortuko da, eta jokalaria bat haren gainean jarriko da. Gainerako jokalariai besoak astintzen hasiko dira, eskuak askatu gabe, goian dagoena mantenduz eta koltxoiaren amaieraraino eramanez. Jolasa behin eta berriz errepikatuko da, ikasle guztiak pasa arte.</p>	

4. jarduera	
Azalpena	
<p>Ikasleei sekuentzia didaktikoan zehar landutako jokoei buruzko galdetegi bat emango zaie (5. <i>eranskina</i>), eta bertan herrialde zein jolas ezberdinen hizkuntzarekin edota ezaugarriekin lotutako galderak agertuko dira. Gainera, laugarren jarduera honetan ikasleek etxetik ekarritako herrialde ezberdinetako objektuak, irudiak, eleberriak, etab. (6. <i>eranskina</i>) besteen aurrean aurkezteko aukera izango dute.</p>	

3.8 Ebaluazioa

Unitate didaktiko osoan zehar behaketaren bidez ebaluatuko da. Horretarako, saioetan suertatzen diren hainbat egoera deskribatu eta hauen konponbidea edo ebazpena zehaztuko da. Behaketa orria (7.1. *eranskina*) saio bakoitzaren amaieran osatuko da eta hau amaierako ondorioak eta kalifikazioa zehazteko orduan baliogarria izango da. Unitatearen amaieran, aldiz, ikasleek sekuentzia didaktikoari buruz hausnartzeko tarte bat izango dute. Era honetan, bakoitzak orrialde batean ikasitakoarekin lotutako hitz, esaldi edo paragrafo bat idazteko eta bururatzen zaien edozein marrazki irudikatzeko aukera izango dute (8. *eranskina*). Aurreko informazioarekin, ikasleen kalifikazioa ezartzeko bakoitzak izandako jarreraren eta progresioaren inguruko heteroebaluazioa beteko da (7.2. *eranskina*). Amaitzeko,

irakasle moduan saioen eta unitatearen inguruko autoebaluazioa osatuko dut (7.3. *eranskina*), non unitatearen eraginkortasuna eta irakasle moduan izan ditudan indargune zein ahuleziak baloratuko ditudan, hobekuntzak egite aldera.

4. Emaitzak

Sekuentzia didaktiko honen bidez ikasleek kultura ezberdinetako ohiturak eta ezaugarriak ezagutzeko aukera izan dute. Eduki horiek guztiak ez dira era islatu eta independente batean landu, izan ere, irakasle moduan nire helburua kulturarteko hezkuntzaren oinarriak kontuan hartzea izan da. Horrela, ezagutza teorikoek bidezko gizarte bat eraikitzeke funtsezkoak diren jarrera praktikoekekin bat egin dute, baita hori lortzeko beharrezkoak diren balioekin ere. Saioetan zehar, ikasleei haien arteko errespetuaren garrantzia azpimarratzen saiatu naiz; balio hau gure xede nagusia erdiesteko ardatza izanik. Hortaz, kultura-aniztasuna balioesteko eta ezberdintasunak integratzeko errespetuarekekin lotutako balioak (lankidetzeta, tolerantzia...) garatzea ezinbestekoa dela transmititu diet.

Ikasleek kulturen aberasgarritasuna ikusteko eta barneratzeko aukera izan dute, eta saioetan zehar haien ikaskuntza prozesuan aktiboki parte hartzeko motibazio handia erakutsi dute. Era honetan, kulturen inguruko ezaugarriak, hizkuntza, kokalekua, etab. landu ditugunean, gehienek aurretik zekitenaren araberrako ekarpenak egiteko grina izan dute. Gainera, azkenengo saioan kultura ezberdinetako objektuak gelan aurkeztu dituztenean, bakoitzaren atzetik zegoen istorioa ilusio handiz azaldu dute, eta guztiontzako esperientzia ezin-hobea izan dela sentitu dut. Irakasgaitik kanpo ere, haurrek kultura ezberdinen inguruko informazioa eskuratu nahi izan dute eta saioan landutako kontzeptu batzuen inguruan gehiago ikastekotan hurbildu zaizkit. Beraz, beste kultura batzuk ezagutzeko interes handia islatu dutela ondoriozta dezaket.

Kulturarteko hezkuntzaren ikuspegitik sekuentzia didaktiko honen helburu nagusia kultura aniztasunaren aberasgarritasuna ulertzea eta errespetatzea izanik, xedea bete dela pentsatzen dut. Ikasleek haien kultura propioaren eta besteen arteko aldea eta antzekotasunei buruz hausnartu eta ezberdintasuna gure gizarteko berezko ezaugarria dela ulertu dute. Horrez gain, ezberdintasun horiek ikasteko aukera ugari ematen dizkigutela helarazi diet, eta horren inguruko gogoeta sustatzen saiatu naiz. Saioetan zehar ez dut ez ikasle etorkinekiko ezta gelan landutako

kultura ezberdinen pertsonetik jarrera arrazistarik hauteman. Izan ere, pertsona guztiak onartzea eta integratzea ezinbestekoa dela landu dugu, baita bakoitzaren ohiturak eta ezaugarri kulturalak errespetatu behar direla ere. Gainera, ikasle etorkinen kideak haien herrialdeen eta bertan jolasten diren jolasen inguruko zalantzak plazaratu dizkiete.

Ikasleen azkenengo hausnarketak ikertuz, kulturarteko hezkuntzarekin harreman estua duten hainbat kontzeptu errepikatu direla nabarmendu dezaket: aniztasuna, ohiturak, ezberdintasuna, errespetua... Haur batzuk jolasen itzulpenak aipatu dituzte eta leku ezberdinak kokatzen ikasi dutela azpimarratu dute. Errespetua gehien agertu den hitzetariko bat izan da, aurreko lerroetan aipatu dudan moduan, balio hau beste guztiaren gainetik jartzen saiatu bainaiz. Gelan burutu izan ditugun jolas gehienak lankidetzaz-aurkaritzakoak izanda, asko harritu nau ikasle batzuk "talde lana" edo "elkarren arteko laguntza" bezalako ideiak nabarmendu dituztela. Bestalde, Gorputz Hezkuntzan beti jarduera berdina egitera ohitura daudenez, askok jolas ezberdinak frogatu izana asko eskertu dute.

Gorputz Hezkuntzaren arloan munduko jolasen bidez kulturarteko hezkuntzaren oinarriak txertatzea oso erakargarria izan daitekeela behatu dut. Izan ere, jolasetan ikasleek azaleratzen dituzten jarreretatik abiatuz balio ugari landu daitezke. Horrez gain, munduko jolasek herrialde ezberdinen ohiturak eta tradizioa aztertzeko eta ikasteko aukera handia ematen dute; haurrentzako erakargarria den kultura elementu batetik abiatuz. Hortaz, ikasleak saioetan zehar gehiago ikasteko eta jolas berriak frogatzeko motibazio handia erakutsi dute, eta horrek nire helburua erraztu du.

5. Ondorioak

Kulturarteko hezkuntzak kultura-desberdintasunen inguruko hausnarketa eta ikerketa hezkuntzaren erdigunean jartzen duen praktika bat proposatzen du; aniztasuna aberasgarritzat eta hezkuntza-baliabidetzat hartuta (Aguado, 2004). Hasieratik, ikasleek mezu hori jaso eta nirekin batera horren inguruko gogoeta bat egin dute, horrela, Besalú eta Vilak (2007) adierazten duten moduan, berdintasunetik jarrera malguak garatu dituzte. Gainera, bi egile hauen arabera kulturarteko hezkuntza gutxiengo etniko edo kulturaletara bakarrik zuzendu ordez, gizarteko kide guztiei zuzenduta dago. Era honetan, nire proposamen didaktikoan

ikasle etorkin zein euskaldunekin baldintza eta irizpide kurrikulular berdinak ezarri ditut, ikasle bakoitzaren gizartean positiboki eragiten duen hezkuntza inklusibo bat sustatuz (De Haro et al., 2010).

Kulturarteko hezkuntzak kultura-ezberdintasunekiko errespetua garatzea sustatu behar duenez, Garcíaren (2005) ustez eskola-eremuan ikasleek balio positiboak eskuratzea ezinbestekoa da. Gure saioetan zehar balio ezberdinen (tolerantzia, enpatia, lankidetzak, etab.) lanketari garrantzia handia eman diot eta aniztasunak balio demokratikoetan hezteko aukera ematen duela behatu dut. Gainera, Soriano (2001), Bartolomé (2002) eta Agudoren (2003) arabera, ikasleen artean kulturarteko jarrera positiboak bultzatu behar dira. Hori aintzat hartuz, ikasleak beste kultura-eredu batzuk positiboki baloratzeko gai izan direla aitortu behar dut.

Kulturarteko hezkuntza bat garatzeko Garcíaren (2005) irizpideak jarraituz, ikasleek norberaren zein besteen nortasunari buruz hausnartzeko eta kultura-eduki berriak ikasteko aukera izan dute. Haurrek euren ezaugarri kulturaletatik abiatuz, besteekiko ezberdintasunak aztertu eta horren inguruan hausnartu dute. Prozesu hori sustatzeko, munduko kulturen elementu esplizituak (herrialdeen datu orokorrak, hizkuntza, kokapena, etab.) zein inplizituak (jolas-motak, arauak, etab.) aztertu dituzte. Horrez gain, egile honek adierazten duen bezala, sekuentzia didaktikoa aurrera eramatean kultura-aniztasunarekin lotutako prozesuak etengabe ebaluatu ditut. Ondorioz, ikasleekin batera aniztasun kulturalarekin lotuta egon diren egoera ezberdinak aztertzeko aukera izan dut. Aurreko guztia kontuan hartuz, argi dago irakasle moduan aniztasunaren erronkari aurre egitea ahalbidetu didaten zenbait jarrera eta gaitasun garatu ditudala, batez ere sekuentzia didaktikoa aurrera eraman aurretik burututako ikerketari esker. Hortaz, Ipiñak (1997) proposatzen duen bezala, kulturarteko hezkuntzako irakasle izateko prestatuta egon naizela esan dezaket.

Azkenik, Gorputz Hezkuntzako irakasgaiak kulturarteko hezkuntza uztartzeko ematen dituen aukerei dagokionez, Bantulà et al. (2002) adierazten duten moduan, irakasgai honek ikasleen arteko harremanak bideratu, hobetu eta sustatu behar ditu, ikastetxe barruan zein kanpoan aplikatuko dituzten jarrera eta balio positiboak sortzeko. Aurretik aipatu dudan moduan, nire esku-hartzean ikasleek jolasen bidez balio positibo ugari landu dituzte, horrela, López eta Valenzuelaren (2007) hitzak

jarraituz, ikasleek jarrera diskriminatzaileak bazterten eta desberdintasuna errespetatzen ikasi dute. Behnke eta Rothek (2002) aipatzen dutenaren arabera, jolasaren bidez ikasleek haien rola aldatzeko eta gizarteko balioak eta kulturetako arauak barneratzeke aukera izan dute. Horrez gain, Peña eta Peñaren (2014) adierazpenei so eginez, jolasek ikasle guztien parte-hartzea eta elkarrekintza bultzatu dute, eta berdintasuna sustatzeko aproposak izan dira.

6. Mugak eta hobekuntza proposamenak

Esku-hartze honetan aurkitu dudan arazorik handienetariko bat denboraren eta espazioaren kudeaketarekin lotuta egon da. Izan ere, ikastetxeko gimnasioa obretan egoteak, Bigarren Hezkuntzako ikasleekin patioko eremuak partekatzeko beharra eragin du. Zentzu honetan, saioetan zehar eremuak eta jardueren antolaketa etengabe aldatu behar izan ditut, eta horrela denbora asko galdu dugu. Ondorioz, lehenengo saioetan ikasleekin batera amaierako hausnarketa bat aurrera eramateko denbora gutxiago izan dugu, eta aurretik prestatutako herrialde batzuen jolasak landu gabe geratu dira.

Bestalde, nire sekuentzia didaktikorako aukeratu ditudan jolas gehienak lankidetzak/aurkaritzakoak izan dira. Mota honetako jolasetan talde bat beste baten kontra aritu behar da, era honetan, talde irabazlea eta galtzailea bereizten dira. Saioetan behatu dudak bezala, ikasle batzuk ez dira galdu dutela onartzeko gai izan eta egoera honen aurrean emozio negatiboak azaleratu dituzte. Hortaz, batzuetan ikasleen arteko talkak eta giro desatsegina sortu dira. Gatazka hauek balio positiboaren garrantzia azpimarratzeko lagungarriak izan diren arren, ikasleen arteko errespetuzko eta lankidetzako jarreretan eragin negatiboa izan dutela esan dezaket. Kooperazioa oinarri izan duten jardueretan, aldiz, kulturarteko hezkuntzak proposatzen dituen balioak gailendu dira, beraz, mota hauetako jolasak ikasle guztien integrazioa lortzeko eta haien arteko errespetua bultzatzeko aproposagoak direla pentsatzen dut.

Azkenik, ikastetxeetan kulturarteko hezkuntza era transbertsalean joratu behar dela pentsatzen dut, eta irakasgai eta momentu jakin batean aurrera eramaten den esku-hartze zehatz bat izan ordez, ikastetxeko egunerokotasunean presentzia eta indar handia duen gai bat izan beharko litzateke. Horrela, ikasleek kultura ezberdinen onarpena funtsezkoa dela bereganatuko lukete eta kulturarteko

hezkuntzak hezkuntza-esparruan ez ezik, gizarte-esparruan ere eragina izango luke. Kulturarteko hezkuntzaren helburua benetako hezkuntza erreforma bat gauzatzea denez, argi dago sekuentzia didaktiko hau beste elementu askorekin batera landu behar dela eta González-Mohinok (2002) adierazten duen moduan, kulturarteko hezkuntzaren irizpideak eskola-komunitate osoak partekatu behar ditu (irakasleak, familiak eta ikasleak).

Erreferentzia bibliografikoak

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma

zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Euskal Herriko*

Agintaritzaren Aldizkaria. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2016eko urtarrilaren

15a, núm. 182, pp. 1-268.

Aguado, T. (2003). *Pedagogía Intercultural*. McGraw-Hill.

Aguado, T. (2004). Educación Intercultural: la ilusión necesaria. In Jiménez, C. (Ed.).

Pedagogía diferencial diversidad y equidad (pp. 151-172). Pearson

Educación.

Aguado, T. eta Ballesteros, B. (2015). Investigando la escuela intercultural.

Experiencias y resultados del grupo INTER. In Escarbajal, A. (Ed.).

Comunidades interculturales y democráticas: un trabajo colaborativo para una

sociedad inclusiva (pp. 99-112). Narcea Ediciones.

Arroyo, M. J. (2013). La Educación Intercultural: un camino hacia la inclusión

educativa. *Revista de Educación Inclusiva*, 6(2), 144-159.

Banks, J. A. (2014). Emigración global, diversidad y educación para la ciudadanía.

Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado, 17(2),

11. <https://doi.org/10.6018/reifop.17.2.197571>

Bantulà, J. eta Mora, J. M. (2002). *Juegos multiculturales: 225 juegos tradicionales*

para un mundo global. Paidotribo.

Bantulà, J., Contreras, O., Lleixá, T., Flecha, R., Puivert, L. eta Torralba, M.A.

(2002). *Multiculturalismo y educación física*. Paidotribo.

Bartolomé, M. (2002). *Identidad y ciudadanía: un reto a la educación intercultural*.

Narcea Ediciones.

Behnke, U. eta Roth, H. (2002). Inmigración y escuela: experiencias de integración en Hamburgo. *Apuntes: Educación Física y Deportes*, 68, 50-56.

Besalú, X. (2002). *Diversidad cultural y educación*. Síntesis.

Besalú, X. eta Vila, I. (2007). *La buena educación*. Los libros de la Catarata.

Chamorro, I. L. (2010). El juego en la educación infantil y primaria. *Autodidacta*, 1(3), 19-37.

De Haro, R., Escarbajal, A. eta Martínez, R. (2010). Una aproximación a la educación inclusiva en España. *Revista de Educación inclusiva*, 3(1), 149-164.

Fernández-Rio, J., eta Méndez-Giménez, A. (2016). El aprendizaje cooperativo: Modelo pedagógico para Educación Física. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (29), 201-206.

<https://doi.org/10.47197/retos.v0i29.38721>

Flores, G., Prat, M. eta Soler, S. (2012). La Educación Física y el deporte como herramientas de inclusión de la población inmigrante en Cataluña: el papel de la escuela y la administración local. *Pensar a práctica*, 15(1), 253-271.

<https://doi.org/10.5216/rpp.v15i1.16653>

García, J. L. (2005). Educación intercultural. Análisis y propuestas. *Revista de Educación*. 336, 89-109.

Gambero, J. (2011). *El juego globalizado*. Paidotribo.

González-Mohino, J. C. (2002). Más cerca que lejos: Una propuesta Intercultural a través de la Educación Artística. *Arte, Individuo y Sociedad*, 14, 49-63.

- Ipiña, E. (1997). *Condiciones y perfil del docente de educación intercultural bilingüe*.
Revista Iberoamericana de Educación, 13(1), 99-109.
<https://doi.org/10.35362/rie1301138>
- Jordán, J. A. (1997). *Propuestas de educación intercultural para profesores*. Graó.
- Juste, R. P. (2004). La educación en contextos multiculturales: diversidad e identidad. *Bordón: Revista de pedagogía*, 56(1), 7-24.
- Lleixá, T. (2007). Educación Física e interculturalidad. Actas del I Congreso de interculturalidad y Educación Física: la integración del alumnado inmigrante a través del movimiento. Chiclana de la Frontera, octubre de 2007. CEP de Cádiz. Junta de Andalucía.
- Llorente B. (2004). *Jolasen oinarri teorikoak eta umeen jolasak: animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Lluch, X. (2005). Societat y multiculturalitat. Una perspectiva educativa. *Cuadernos electrónicos de filosofía del derecho*, 12, 183-207.
- López, M. G. eta Valenzuela, A. V. (2007). Multiculturalidad en las clases de Educación Física a través de los juegos del mundo. *Lecturas: Educación física y deportes*, (105), 2.
- Medina, F. (2002). Deporte, inmigración e interculturalidad. *Apuntes: Educación Física y Deportes*. 8, 24-35.
- Peña, D. eta Peña, P. (2014). La actividad física como elemento socializador en el alumnado del primer ciclo de educación secundaria. *Emás F, Revista Digital de Educación Física*, (31), 86-111.
- Sáez, R. (2006). La educación intercultural. *Revista de Educación*. 859-881.

Soriano, E. (2001). *Identidad cultural y ciudadanía intercultural: su contexto educativo*. La Muralla.

Velázquez, C. (2001). Los juegos y danzas del mundo como recurso para una Educación Física intercultural. Una propuesta en educación primaria.

Tándem: Didáctica de la educación física, 5, 48-58.

Velázquez, V. (2010). *365 juegos de todo el mundo*. Océano Ambar.